

Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduerak urte arteko %3,1eko hazkunde-tasa izan du 2006ko irailean


Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetako hazkundea %4,2koa izan da, 2005eko aldi beraren aldean

EUSTATEN datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2005eko otsailaren aldean %3,1 hazi da 2006ko irailean. Urteko lehenengo bederatzi hilabeteetako hazkundea %4,2koa izan da, 2005eko aldi beraren aldean.

2006ko irailean, eta 2006ko abuztuaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %3,2 murriztu da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundea



Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusien sailkapena kontuan hartuta, 2006ko iraileko indizearen bilakaerak (2005eko irailaren aldean) zeinu ezberdineko aldaketak izan ditu sektore guztietan: ekipamenduko ondasunak %5,9 hazi dira, tarteko ondasunak %3,1 gehitu dira eta energia %4,9 gehitu da; baina kontsumoko

ondasunak %4,7 murriztu dira, kontsumo-ondasun ez iraunkorrek eta kontsumo-ondasun iraunkorrek izandako beherapenen ondorioz (%-6,5 eta %-1,3 hurrenez hurren).

2006ko iraileko hilabete arteko aldakuntzek (2006ko abuztuaren aldean) zeinu ezberdina izan dute industriako sektoreetan. ekipamenduko ondasunak %8,2 murriztu dira hilabete artean, tarteko ondasunak %0,6 gehitu dira aurreko hilaren aldean, energia %3,3 gehitu da eta kontsumoko ondasunak %1,1 murriztu dira abuztukoan aldean, kontsumo-ondasun iraunkorrak %-1,2 gutxitu direlako eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak %-1,0 gehitu direlako.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak ezberdinak izan dira hiru lurraldeetan: Araban %1,0 murriztu da, Bizkaian %5,4 gehitu da eta Gipuzkoan %3,0 gehitu da.

2006ko abuztutik irailera lurraldeetan tasa hauen izan dira: Araban %9,2 murriztu da tasa, Gipuzkoan %3,4 murriztu da eta Bizkaian %0,2 gehitu.

Taula: 2006ko Iraila. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Ira06/Ira05	At/At-1 (1)	Ira06/Abu06	Abu06/Uzt06
Indize orokorra: Euskal AE	3,1	4,2	-3,2	4,6
Araba	-1,0	3,0	-9,2	10,7
Bizkaia	5,4	4,9	0,2	1,8
Gipuzkoa	3,0	4,2	-3,4	4,2
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-4,7	-0,8	-1,1	0,7
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-1,3	-0,1	-1,2	0,1
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-6,5	-1,2	-1,0	1,0
Ekipo-ondasunak	5,9	8,2	-8,2	11,3
Bitarteko ondasunak	3,1	2,1	0,6	0,2
Energia	4,9	10,2	3,3	-1,6

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>